

## JASANGARRITASUNA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

### INDUSTRIA SEKTOREAREN ENERGIA-EFIZIENTZIA

- **Deskribapena/Helburua:** Laguntza-programaren helburua da karbono dioxidoaren emisioak eta azken energia-kontsumoa murriztuko dituzten jarduketak egitea eta, hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko energia efizientzia hobetzea. Diruz lagundu daitezkeen jarduketaren tipologia:
  - Energia kontsumitzen duten ekipamendu eta instalazioak, prozesuak eta sistema osagarriak hobetzeko inbertsioak, edo energia-efizientzia handiko teknologiak edo eskura dagoen teknologiarik onena erabiltzen duten beste batzuekin ordeztzeko inbertsioak. Ekonomia/energia ratio maximoa izango da urtebetean azken energian aurrezten den petrolio-tona baliokide bakoitzeko 14.379 euroko inbertsio hautagarria.
  - ISO 50001 Araua betetzen duten SGE bat ezartzea energia-kontsumitzaile handiak ez diren enpresetan. Gehieneko ratio ekonomiko/energetikoa 14.501 eurokoa izango da (inbertsio hautagarria)/tep (urtebetean azken energia aurrezteak).
- **Onuradunak:**
  - Industria-sektoreko enpresa txiki eta ertaina, edo enpresa handia, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren arabera B, C, D edo E taldekoa, egoitza fiskala Espainian duena eta laguntzaren xede den jarduketa Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen duena.
  - Energia zerbitzuetako enpresak, aurreko atalean adierazten diren enpresetakoren bati energia zerbitzatzeko kontratua dutenak. Proiektua gauzatzen den enpresari jasanaraziko zaio programa honetan aurreikusten den laguntza.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 61.000.000 €
- **Argitaratze data:** 2019ko abuztua
- **Laguntzaren antolaera:** Ondoz ondo ematea
- **Zuzendaritza arduraduna:** Industria eta Trantsizio Energetikoa EVE taldearen laguntzarekin batera
- **Harremanetarako:** Luis de Velasco Pérez: gestionayudas@eve.eus Tel. 946620600
- **Informazio gehiago:** [www.eve.eus](http://www.eve.eus)

## MOVES III

- **Deskribapena/Helburua:** Laguntza-programaren helburua da energia-kontsumoa arrazionalizatzea eta, salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasunean, petrolioarekiko mendekotasuna murriztea. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan bultzatuko da garraibide efizienteagoetarako transferentzia, energia berriztagarrien erabilera, energiaren aldetik efizienteagoak diren teknologien erabilera eta karga elektrikorako eta erregai alternatiboen hornidurarako beharrezkoak diren azpiegituren eskuragarritasuna. Honako pizgarri-programa hauek onartu dira:
  - Entxufa daitezkeen eta erregai-pila duten ibilgailu elektrikoak eros daitezen sustatzekoa.
  - Karga-azpiegituraren hedapena babestekoa.
- **Onuradunak:**
  - Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoak.
  - Pertsona fisiko adindunak, desgaitasunaren kasuak izan ezik -kasu horietan adingabeak izan daitezke-, egoitza fiskala. EAEn dutenak eta aurreko atalean jaso ez direnak.
  - EAeko jabeen erkidegoak.
  - Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren (IFZ) lehen letra A, B, C, D, E, F, G, J, R edo W duten pertsona juridikoak, eta bizitokia edo helbide soziala eta fiskala EAEn dutenak.
  - Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 3. artikulua (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) arabera tokiko erakundeak, eta 40/2015 Legearen 2.2 artikuluan aipatzen den edozein administrazio publikotako sektore publiko instituzionala.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 41.776.421 € (MRR funtsen gehikuntza izan liteke)
- **Argitaratze data:** 2021eko uztaila
- **Laguntzaren antolara:** Ondo ondoko lehiaketa
- **Zuzendaritza arduraduna:** EEEren Garapen eta Berrikuntza
- **Harremanetarako:** Maite González Mtnz. de Alegría: [gestionayudas@eve.eus](mailto:gestionayudas@eve.eus) Tel. 946620600
- **Informazio gehiago:** [www.eve.eus](http://www.eve.eus)

## GARRAIO-FLOTEN ERALDAKETA

- **Deskribapena/Helburua:** Laguntza-programaren helburua da salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko ibilgailu astunen parkea berritzea, karbono urriko energia alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuen propulsiarako teknologien hedapena sustatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan automozioaren sektorea bultzatzea eta industria suspertzea.
- Diruz lagundu daitezkeen jarduketak dira:
  - Ibilgailuak txatarra bihurtzea.
  - Karbono urriko energia alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuak ero.
  - Ibilgailuen propulsiario modua aldatzea edo «retrofit» birmoldaketa.
  - Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura ezartzea.
  - Tren-autobideetarako erdi-atoiak erostea.
- **Onuradunak:** Jarduera ekonomiko edo juridikoren bat egiten duten pertsona fisikoak, baldin eta laguntzak eskatzen diren egunean indarrean dauden baimen hauetakoren baten titularrak badira:
  - MDPE gakoarekin identifikatzen den salgaien garraio publikorako baimena, 3,5 tonatik gorako gehieneko masa duten ibilgailuekin edo ibilgailu multzoekin garraiatzeko gaitzen duena.
  - VDE gakoarekin identifikatzen den autobus bidezko bidaiarien eskatu ahalako garraio publikorako baimena.
  - MPCE gakoarekin identifikatzen den salgaien garraio pribatu osagarriarako baimena, 3,5 tonatik gorako gehieneko masa duten ibilgailuekin edo ibilgailu multzoekin garraiatzeko gaitzen duena.
  - VPCE gakoarekin identifikatzen den autobus bidezko bidaiarien garraio pribatu osagarriarako baimena.
  - MDLE gakoarekin identifikatzen den salgaien garraio publikorako autonomia-erkidegoko baimena, betiere baimen horri 3,5 tonatik gorako gehieneko masa duten ibilgailuak lotzen bazaizkio.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 11.420.212 € (MRR funtsen gehikuntza izan liteke)
- **Argitaratze data:** 2022ko martxoa
- **Laguntzaren artikulazioa:** Ondo ondoko lehiaketa
- **Zuzendaritza arduraduna:** EEEren Garapen eta Berrikuntza
- **Harremanetarako:** Maite González Mtnz. de Alegría: gestionayudas@eve.eus Tel. 946620600
- **Informazio gehiago:** [www.eve.eus](http://www.eve.eus)

## OSTATUKO TURISMO-ENPRESEN ENERGIA-ERAGINKORTASUN PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN

- **Deskribapena/Helburua:** Laguntza programaren helburua da ostatustablezimenduetarako eraikinen berrikuntza bizkortzea eta Euskadiko turismo-enpresen lehiakortasuna areagotzea. Gainera, gaur egun dagoen eraikuntzaren jasangarritasuna bultzatuko da, honako jarduera hauen bidez: inguratzailer termikoan aldaketak egitea, jatorri fosileko erregaiak erabiltzen dituzten sorkuntza termikoko instalazioak iturri berriztagarrietan oinarritutako sorkuntza termikoz ordeztekoa (biomasa, geotermia, eguzki-energia termikoa, bero-ponpa), erregulazio- eta kontroleknologiak sartzea, eta argiztapenean energiagarinkortasuna hobetzea.
- **Onuradunak:**
  - Hotelak: Hotelak, hotel-apartamentuak eta pentsioak.
  - Apartamentu turistikoak.
  - Kanpinak.
  - Landa-turismoko etxeak eta landa-etxeak.
  - Turismoko aterpetxeak (Behin-behinekotzat edo behin-behinekotzat hartzen ez diren eraikin).
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 3.800.204 € (MRR funtsen gehikuntza izan liteke)
- **Argitaratze data:** 2022ko abendua
- **Laguntzaren artikulazioa:** Segidako konkurrentzia
- **Zuzendaritza arduraduna:** EEEren Garapen eta Berrikuntza
- **Informazio gehiago:** [www.eve.eus](http://www.eve.eus)

## ENERGIA-EFIZIENTZIAN, ENERGIA BERRIZTAGARRIETAN ETA MUGIKORTASUN EFIZIENTEAN INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZEN

- **Deskribapena/Helburua:**
  - Industrian eta eraikinetan hidrogenoa kontsumitzeko inbertsioak egitea, erregai fosilen kontsumoak ordezkatzeko.
  - ETEetan energia-efizientzia sustatzeko inbertsioak, energia-kontsumoa murriztea dakartenak, egitea.
  - Energia-eraginkortasunerako inbertsioak egitea banaketa-sektorean, murrizketa dakartenak energia-kontsumoan.
  - Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralak ezartzeko inbertsioak egitea.
  - Garraio eta mugikortasun efizienterako jarduketak egitea; mugikortasun bertikaleko energia-aurrezkia, gas naturalez hornitzeko instalazioak, bizikletaren sustapena.
- **Onuradunak:**
  - Oro har, ETE izaera duten enpresak. Neurri bakoitzean EJSNen mugak egiaztatzekoa.
  - Energia Zerbitzuen Enpresa gisa jardunez, laguntza-programa honetan aurreikusitako jarduketak Azpiprograma honen onuradun izan daitezkeen kontura egiten dituzten pertsona juridiko guztiak.
- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 1.400.000 €
- **Argitaratze data:** Lehen hiruhilekoan deitu beharrekoa
- **Laguntzaren artikulazioa:** Segidako konkurrentzia
- **Zuzendaritza arduraduna:** EEEren Garapen eta Berrikuntza
- **Informazio gehiago:** [www.eve.eus](http://www.eve.eus)

## ENERGIA-IKUSKARITZA INTEGRALAK ETEetan

- **Deskribapena/Helburua:** Programa honen bidez, ETEetan energiari buruzko auditoretza integralak egitea sustatu nahi da, haien instalazioen azken energia-konsumoa eta CO2 emisioak murrizteko.

Auditoretza egiteko erabili beharreko metodologia UNE-EN 16247 arauari edo horren ondorengo aldaketa edo hobekuntzei lotuko zaie. Kontuan hartukodira honako hauek: garatu beharreko irismena, eskatzailearen kontsumitzaile-profila, kontsumitutako energiak, egin beharreko monitorizazioak, garatu beharreko energia-balantzeak eta horien konplexutasuna, kogenerazio-instalazioen bideragarritasun-azterketa ala ez, etab.

- **Onuradunak:** Industriaren eta hirugarren sektorearen ETEtat jotzen diren enpresak, baldin eta 2009ko Jardueren Sailkapen Nazionala (CNAE 2009) 07tik 39ra bitartekoa bada, sektore industrialean barne, eta 41etik 99ra bitartekoa, hirugarren sektorean barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jarrantasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen arabera, energia kantitate handia kontsumitzen duten enpresatzat hartzen ez badira.

Energia kantitate handia kontsumitzen duten enpresek urtean azken energia-konsumoa 500 tpb baino energia gehiago kontsumitzen dute industria-sektorean, eta 40 tpb hirugarren sektorean.

- **2024ko deialdiaren zenbatekoa:** 5.000.000 €
- **Argitaratze data:** 2023ko maiatza
- **Laguntzaren artikulazioa:** Segidako konkurrentzia
- **Zuzendaritza arduraduna:** EEEren Garapen eta Berrikuntza
- **Informazio gehiago:** [www.eve.eus](http://www.eve.eus)